

Alegiako Liburutegia, herriari zerbitzua eskaintzen garai berrietara egokituz

ALEGIA. DV. Alegiako Udal Liburutegia 1985ean ireki zen. Jubilatuen tabernaren ondoko lokala zuen orduan kokaleku eta hantxe atondu zuten guztia. Nahiko azakar egin zen dena, gogoratzen du Fatima Munduatek, Alegiako Udal Liburutegiko arduradunak. Liburutegia ireki behar zela erabaki zen. Apalak eta beharrezko material guztia ekarri zen eta Diputazioa arduratu zen liburuen horniketaz. Hasiera hartan liburutegian 3.000 liburu inguru zeuden gutxi gora behera.

Liburutegia ireki eta jendea berehala hasi zen bertara hurbiltzen. Hasieratik jarri genuen martxan mailegu zerbitzua eta honek jende asko erakarri zuen, dio Fatimak. Berak ere zenbait ikastaro egin zituen katalogazioari eta klasifikazioari buruz. Dena azkar joan zen. Liburutegia ireki zen eta hala, barrura! Liburutegi batek nola funtzionatzen zuen ikusteko baliagarriak izan ziren Diputazioak eta Euskadiko Bibliotekario eta Dokumentalisten Asoziazioak urtero antolatzen zituen ikastaroak.

Egoitza berria

Duela 13 urte liburutegiaren egoitza berria ireki zen, gaur egungoa, alegia. Kultur Etxearen barruan dago eta aurreko lokala baino askoz haundiagoa da. Besteak beste, helduentzako eta haurrentzako gelak bereiztuta ditu. Gaur egungo liburutegiak kontsulta zen mailegu zerbitzuak ditu. Horrez gain, gazte asko joaten da bertara ikastera. Hau dela eta, duela urte batzuk helduen gelaren barruan, beste gela txiki bat atondu zuten ikasi nahi zutenentzat. Gela horretan azterketetarako ikasi behar dutenak egoten dira, isiltasun osoan. Horretarako bakarrik da. Taldeko lanak eta antzerakoak egin nahi dituztenek hortik kanpo egiten dituzte, azaldu digu Fatimak.

Euskadiko Liburutegiak

Orain dela bi urte, Alegiako Udal Liburutegia Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalean sartu zen. Bertan Euskal Autonomi Erkidegoko liburutegi gehienak daude. Liburutegi guztien fondo informatizatuekin katalogo bateratu bat osatua dute. Horrela, liburutegi bakoitzak gainerakoetan zein liburu dauden jakin dezake. Hori oso baliagarria da, dio Fatimak. Norbaitek hemengo liburutegian ez dagoen libururen bat nahi badu, beste liburutegiren bati eska diezaiokegu. Liburutegien arteko mailegu sistema bat bezala da.

Sare honetan sartu aurretik liburutegien arteko mailegutza ere bazegoen, baina ezberdintasun garrantzitsuena zen liburutegi batek ezin zuela beste liburutegi baten katalogoa kontsultatu. Liburutegira bertara deitu eta galdetu egin behar zen. Hemendik normalean Koldo Mitxelenara eskatzen genituen liburuak, haiekin harreman estua dugu eta askotan lan egin izan dugu beraiekin, kontatu digu Fatimak.

Katalogo bateratu hori etengabe osatuz doa, liburutegi bakoitzak liburu berri bat erosten duen bakoitzean katalogoan sartzen baitu. Horrez gain, Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalen sartuta egoteak ere badu beste abantaila bat. Liburutegiko bazkide bakoitzak txartel bat dauka eta txartel horrekin sarearen barruan dauden edozein liburutegitatik har ditzake liburuak, nahiz eta bere herrikoa ez izan. Txartel horrek sistemaren barruan dauden liburutegi guztietarako balio du, dio Fatimak.

Une honetan Alegiako Udal Liburutegiak 186 bazkide ditu. Gehien ateratzen diren liburuak gaztelerazko nobelak eta umeentzako liburuak dira, azaldu digu Fatimak. Gainera, garai jakin batzuetan normalean baino liburu gehiago hartzen ditu jendeak. Adibidez, opor garaian helduek nobela asko hartzen dituzte maileguan. Gaztetxoan artean, aldiz, eskola garaian nabaritzen da mugimendurik handiena.

Euskarazko liburuak

Batez beste, egunean 15 bat liburu ateratzen dira maileguan. Liburu horietatik guztietatik bat edo bi soilik izaten dira euskaraz, gainerako guztiak gazteleraz. Lehen ere aipatu dugu, jende helduak gehien irakurtzen dituen liburuak gaztelerazko nobelak direla. Eta euskarazko eleberriak? Bada, Fatimak esan digunez, askoz gutxiago. Jende helduak ez dauka ohiturarik euskaraz irakurtzeko, hau aspalditik datorren kontua da eta ez dirudi oraingoz behintzat aldatzen ari denik. Batek baino gehiagok esan izandu dit: ' Euskaraz irakurtzen ere hasi beharko nuke, baina pereza ematen dit '. Horixe da kontua, jendeari nekagarri xamarra egiten zaio euskaraz irakurtzea. Neurri handi batean ohitura falta da, ez dago zalantzarik baina batek baino gehiagok esan izan du euskarazko liburuak irakurtzeko zailagoak direla.

Ohitura kontua da, beraz, eta gauza jakina da ohiturak aldatzeko denbora asko behar dela. Kontuak kontu, Alegiako Udal Liburutegiak 21 urte daramatza lanean, herriari zerbitzu bat eskaini eta ahal den neurrian irakurzaletasuna bultzatu asmoz. Jarrai dezala horrelaxe urte askoan.